



BEASAINGO UDALAREN ETA AITTU! EUSKARA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA DIRULAGUNTZA NOMINATIBOA JASOTZEKO

Beasainen, 2021eko ekainaren 15ean.

HONAKOAK BATZARTUTA:

Alde batetik, LEIRE ARTOLA UGALDE andrea, Beasaino Udaleko Alkate-Presidentea, 35779121E NA zenbakiduna, BEASAINGO UDALAREN ordezkari gisa (IFK: P2002100B, hitzarmen honen helburuetarako helbidea: San Martin plaza, 1, PK 20200, Beasain), 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan esleitzen dizkion ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoarekin esku hartzen duena.

Bestalde, AITTU! EUSKARA ELKARTEA, G75230607 IFK zenbakiduna eta egoitza Beasainen duena, Martina Maiz kaleko 3 zenbakian, egintza honetan Patxi Saez Beloki jaunak ordezkaturik, adinez nagusia dena, 15969078V NAN zenbakiduna, helburu hauetarako helbidea Martina Maiz kaleko 3 zenbakian duena eta ordezkari 2019ko urriaren 15eko datako Batzar Orokorraren bileran burututako ahalmenen eskuordetzearen arabera jarduten duena.

Esku hartzaileek nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko dituzten erakundeen izenean hitzarmen hau izenpetzeko eta, helburu horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE

- I) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak zuzenki emateko aukera.
- II) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.



- III) Beasaino Udaleko 2021erako aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean diru laguntza nominatibo bat aurreikusi da AITTU! EUSKARA ELKARTEAREN alde, Beasainen euskararen erabilera sendotzeko helburuarekin.
- IV) AITTU! EUSKARA ELKARTEAK garatzen dituen jarduerak eta dirulaguntza honen xede direnak Beasaino Udalaren dirulaguntzak emateko eskumen alorren barne daude, Beasaino udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko helburua duen proiektua baita eta, ondorioz, udalari dagokion eskumena da, honakoetan xedatutakoaren arabera: 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 25.2.m) artikuluan xedatutakoa; 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.1.26) artikuluan xedatutakoa; Beasaino Udaleko 2021erako aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean xedatutakoa; eta 2020-2022 Diru Laguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoa, Alkatetzaren 2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Ebazpen bidez onartu zena, EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEA helburu estrategiko gisa ezarrita eta, hartara, diru laguntza hau 3. ildoaren 3.2 jarduketan barne hartuta.

Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu da jarraian adierazitako klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da AITTU! EUSKARA ELKARTEARI 15.000,00 euroko dirulaguntza nominatiboa ematea jarraian adierazitako jardueren garapen eta egikaritzetik eratorritako gastuen finantzaketan laguntzeko helburuarekin:

1. Beasaino Euskalgintza egituratu.

- Beasaino euskalgintza egituratzeko elkarlanerako adostasunak bilatuko ditu Beasaino gizarte esparru guztietako eragileekin eta saiatuko da banan banako engaiamenduak lotzen.
- Beasaino hizkuntza planifikazioa hezurmamitzeko Beasaino gizarte arlo guztietako eragileekin Euskalgintzaren Mahaia antolatuko du eta baita arlokako mahaiak ere.
- Aittu! Euskara Elkarteak kale-erabileraren datu-bilketa xehea eskatuko dio Soziolinguistika Klusterrari 2021eko Soziolinguistika Klusterrak egingo duen



kale-erabileraren neurketan, Aittu! Euskara Elkarteak datu-biltzaileak topatzeko eta prestakuntza emateko ardura hartuko du. Ondorengo urteetan Aittu! Euskara Elkarteak hartuko du Beasaino kale-erabileraren datu bilketa xehea eta datuei buruzko txostena urtero egiteko ardura.

2. Beasaino arlo sozioekonomikoan eragin

- a. Aittu! Euskara Elkarteak 2020ko Euskaraldian Aittuguneak sortzen parte hartu zuten Beasaino 200 erakundeei elkarlanerako proposamen bana egingo die bi helbururekin, batetik, euskararen sustapenean elkarlanean aritzeko eta, bestetik, TiketBAI fakturazio sistema euskara jar dezaten laguntzeko.
- b. Aittu! Euskara Elkarteak Beasaino merkataritza elkarteari proposatuko dio elkarlanean TiketBAI fakturazio sistema euskaraz jartzeko sustapen lana egitea.

3. Beasaino gazteengan eragin

- a. Aittu! Euskara Elkarteak 2020ko Euskaraldian izena emandako gazteen 18 kuadrillekin (15-27 urte bitarteko 200 gazte inguru) euskara Beasaino gazteen harremanetarako ardatz hizkuntza bihurtzeko Aittugazte dinamikari ekingo dio.

4. Euskararen Nazioarteko Eguna.

- a. Aittu! Euskara Elkarteak Euskararen Nazioarteko Egunaren antolaketan parte hartuko du, eta horretarako giza baliabideak eta baliabide intelektualak jarriko ditu eta lanen koordinazioa egingo du.

5. Aittu! Euskara Elkarteak egituratu

- a. Aittu! Euskara Elkarteak hitzarmen hau aurrera eramateko lan-batzordeak sortu eta abian jarriko ditu.
- b. Aittu! Euskara Elkarteak bazkidetza sustatuko du 2020ko Euskaraldian euskararen sustapenean laguntzeko prest azaldu diren 45 beasaindarren artean.
- c. Aittu! Euskara Elkarteak bere jarduerarako beharrezkoak dituen baliabide materialak eta digitalak lortzeko inbertsioak egingo ditu: ordenagailua, telefonoa,...

6. Goierriko Euskalgintza egituratu

- a. Aittu! Euskara Elkarteak Goierriko euskara elkarteekin eta Topagunearekin elkarlanerako plangintza bat zehaztu eta egikarrituko du.



Aipatutako jardueren egikaritzeak suposatuko duen aurreikusitako gastu osoa hitzarmen honen xede den dirulaguntzaren zenbateko osoa adinakoa da, idatzi honen eranskin modura atxikitzen den aurrekontuan ikus daitekeen bezalaxe.

BIGARRENA. BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK.

Beasaingo Udalaren betebeharrak dira:

1. Beasaingo Udalak Aittu! Euskara Elkarteari Martina Maiz kaleko 3 zenbakian duen lokalaren lagapena egingo dio hitzarmen honek helburu dituen jarduerak egikaritzeko.
2. Beasaingo Udalak Aittu! Euskara Elkartearekin elkarlanean Euskararen Nazioarteko Egunaren antolaketan parte hartuko du eta azpiegitura baliabideak jarriko ditu.
3. Beasaingo Udalak Aittu! Euskara Elkartearekin elkarlanean TiketBAI fakturazio sistema jartzeko kanpaina diseinatu eta sustatuko du.
4. Beasaingo Udalak ardura hartuko du Goieki Goierriko garapen agentziarekin harremanetan jartzeko eta proposatzeko TBAI euskarazko fakturazioaren sustapena elkarrekin egitea.
5. Beasaingo Udala harremanetan jarriko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hizkuntza Berdintasunerako zuzendariarekin Gipuzkoako Foru Aldundiari sustapen neurriak hartzeko eskaria egiteko, Gipuzkoako jarduera ekonomikoetan TBAI fakturazio sistema euskaraz jartzea bultzatzeko. Sustapenerako neurrien artean bereziki sustapen fiskaleko neurriak hartzea proposatuko dio.
6. Beasaingo udalak 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko Toki Entitateetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa oinarri hartuta, herri-bideetan mahaiak eta aulkiak jartzea ahalbidetzen duen ordenantza berri eta hizkuntza irizpideak txertatzea aztertze konpromisoa hartzen du.
7. Beasaingo udalak ardura hartuko du 2022. urteko udalaren ordenantza fiskaletan sustapen neurriak har ote daitekeen aztertze, Beasainen TBAI fakturazioa euskaraz jartzen duten jarduera ekonomikoentzat.
8. Beasaingo udalak konpromisoa hartzen du Beasaingo Euskalgintzaren mahaietan parte hartzeko. Horretarako solaskide bat izendatzeko ardura hartuko du.

Adostutako zenbatekoa duen dirulaguntzaren ordainketa burutzea AITTU! EUSKARA ELKARTEAren alde, hitzarmena sinatu ondoren, hitzarmen honen hirugarren klausulan adierazitako ordainketa modua baliatuta.

AITTU! EUSKARA ELKARTEAren betebeharrak dira:



- 1) 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
- 2) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- 3) Udal organo eskudunak edo udal kontu hartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.
- 4) Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.
- 5) Diruz lagundutako jarduerak burutzea.
- 6) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean.
- 7) Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.
- 8) Dirulaguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.
- 9) Eginkizunen garapenean eragin litezkeen kalte eta guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetzea.
- 10) Jarduera guztietan Legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartzea, erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna babestuta.
- 11) Elkarrekin euskararen erabilera sustatuko du programatutako jardueretan. Betiere honakoak kontuan hartuta: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa; indarrean dagoen Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantza; eta Beasaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.



12) Elkarateak kontuan hartuko ditu berdintasun irizpideak (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, eta 3/2012 Legea, otsailaren 16koa, aurrekoa aldatzen duena) bai elkaratearen baitan zein sustatutako proposamenen egikaritzean ere.

HIRUGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA.

Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako jarduerak garatzeko helburuarekin, Beasaingo Udalak, AITTU! EUSKARA ELKARTEAREN aldeko diru laguntza nominatibo gisa, 15.000,00 euro ordainduko ditu, eta Martina Maiz kaleko 3 zenbakiko lokala erabiltzeko baimena emango dio.

15.000,00 euroko zenbatekoa hitzarmena sinatu ondoren ordainduko da, ordainketa aurreratu gisa, betiere onuradunak egiaztatu badu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta eginez.

- Hala ere, onuradun eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.

- Onuradunak uko egiten dio aipatutako egiaztapen automatikoari.

Hitzarmenaren xede den dirulaguntza jaso ahal izateko, onuradunak ez du inolako bermerik eskaini beharko.

Hitzarmen honen xede den diru laguntza 2021 ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontuko 0230.481.335.30.01 partidari egotziko zaio, behar bezalako nahikoa kreditu duena.

LAUGARRENA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko



moduzkotzat joko dira 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekaratuak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialerako gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.
- f) Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordiorik izan ezean.

BOSGARRENA. BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandakoak, edo Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak badira ere.

Zentzu horretan eta dirulaguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako dirulaguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, dirulaguntzaz gain, funts propioak edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

SEIGARRENA. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

Ezarritako baldintzak bete izanaren eta emakidan aurreikusitako helburuak lortu izanaren justifikazioa dokumentatu egingo da justifikatzeko kontu emate baten bitartez. Kontu emate hori onuradunaren derrigorrezko egintza izango da eta barne hartu beharko ditu, deklaratazailearen erantzukizunpean, dirulaguntzaren helburua bete dela



egiaztatzea ahalbidetzen duten gastu egiaztagirak edo balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikatzeko kontu ematea burutu beharko da 2022ko urtarrilaren 15a baino lehen, Udalaren aurrean aurkeztuta emandako dirulaguntzaren erabilera justifikatzeko dokumentazio hau:

1.- Burututako jardueren laburpen txostena.

2.- Jardueren gastuaren justifikazio txostena, honako edukiarekin:

a) Gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta kontzeptua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adieraziko duena, diruzainak sinatuta.

b) Fakturak edo Merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten eta administrazio-eraginkortasuna duten froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentu guztiak ere, aurreko a) letran aipatzen den zerrendan sartutakoak. Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko, aurretiazko akordiorik izan ezean.

3.- Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (aurreko tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkartearen aitortpena aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta beti ere Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak jarraituz.

4.- Garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat.

ZAZPIGARRENA. JARRAIPEN, ZAINZA ETA KONTROL MEKANISMOAK.

Jarraipen Batzorde Misto parekide bat sortuko da, alderdi sinatzaile bakoitzaren aldetiko bi ordezkariarekin, Udaleko Alkateak eta erakunde onuradunaren organo eskudunak izendatuko dituztenak, eta batzorde horren helburuak izango dira hitzarmena sustatzea eta haren jarraipena burutzea, ager litezkeen zalantzak argitzea eta hitzarmena ebaluatzea. Batzorde hau urtean bitan elkartuko da gutxienez.

Batzorde honek eginkizun hauek izango ditu:

- Hitzarmenaren eta sinatzaileek izenpetutako konpromisoen egikaritzearen zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenaren egikaritzean ager litezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebaztea.



Hitzarmen honetan berariaz aurreikusi ez diren kasuetarako, batzordea arautuko da, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen dutenak, alegia.

Beasaino Udalak eta Aittu! Euskara Elkartek solaskide bana izendatuko dute eguneroko jardunean elkarri jakinarazi beharrekoak jakinarazteko eta elkarrekin adostu beharrekoak adosteko. Solaskideak Beasaino alkatea eta Aittu! Euskara Elkarteko lehendakaria izango dira.

ZORTZIGARRENA. ONARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK.

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

Dirulaguntzaren onuradunak onartutako betebehar eta konpromisoak beteko ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi diru laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak, 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorren 37. artikuluan jasotzen den moduan .

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

BEDERATZIGARRENA. HITZARMENA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Ezarritako indarraldia amaitzea, hau da, 2021eko abenduaren 31.
- Alderdi sinatzaileen arteko ahobatezko akordioa.
- Alderdi etako batek bere gain hartutako betebehar edo konpromisoak ez betetzea.
- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.

Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebehar eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan



xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.

Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan.

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.

HAMARGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESERAKO ARAUBIDEA.

Datuen babeserako araubideari dagokionez, Udalak eta AITTU! EUSKARA ELKARTEAK 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, aurreikusitako derrigorrezko xedapenak errespetatu beharko dituzte.

Beraz, hitzarmenaren garapenaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalak alderdi sinatzaileen erantzukizunpekoak diren datu fitxategietan sartuko dira eta hitzarmenean aurreikusitako obligazioak betetzeko soilik tratatuko dira.

HAMAIKAGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea indarrean sartu ondoren, eta haren 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, hitzarmenaren indarraldia ez da izango 4 urtetik gorakoa, alderdiek aho batez luzapen bat edo gehiago adosteko aukera kaltetu gabe, gehienez ere lau urtetan zehar hasierako epea amaitu zenetik.

Hitzarmen honek legezko xedapen hau betetzen du, sinatu zenetik 2021eko abenduaren 31ra bitarteko indarraldia baitu. Hitzarmenak ez du luzapenik onartzen.

HAMABIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA.

Hau izango da legeria aplikagarria:

- Udalaren Aurrekontu Orokorra, Beasaingo Udaleko Osoko Bilkuraren 2020ko azaroaren 26ko Akordio bidez onartu zena.
- Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, 2020-2022 aldirakoa, 2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Alkatetza Ebazpen bidez onartu zena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.



- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- Beasaino Udaleko dirulaguntzen udal ordenantza arautzailea, Osoko Bilkuraren 2006ko azaroaren 30eko Akordio bidez onartu zena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 4. artikuluan berariaz xedatutakoaren arabera, hitzarmenak legearen aplikazio eremutik kanpo uzten dituen, lege horren printzipioak ager litezkeen zalantzak eta gabeziak argitu eta osatzeko aplikagarriak izan arren.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da alderdien artean ager litezkeen interpretazio, arazo eta egikaritze gaiak ebazteko eskuduna.

HAMAHIRUGARRENA. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

AITTU! EUSKARA ELKARTEAK hitzarmen honetatik eratorritako obligazioak betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu, baina haren langileek ez dute inolaz ere izango lan arloko loturarik edo lotura juridikorik Beasaino Udalarekin.

AITTU! EUSKARA ELKARTEAK, hitzarmen honetatik eratorritako jardueren garapenean, errespetatu egingo du 1/1996 Lege Organikoak, adingabearen gaineko babes juridikoari buruzkoak, xedatutakoa eta, zehazki, haren 13.5 artikuluan eskatutako akreditazioari dagokionez, adingabeekin harremana dakarten lanbideak, ogibideak eta jarduerak burutzeko kasuan.

HAMALAU GARRENA. DIRULAGUNTZA ITZULTZEA.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erreglamenduaren 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak jasotako zenbatekoa modu boluntarioan itzuli ahalko du, Udalak aurretiaz halakorik eskatu gabe.



Kasu horretan, diru laguntzaren onuradunak Beasaingo Udalaren aldeko banku transferentzia bat burutu beharko du. Diru sarreran zehaztu beharko dira diruz lagundutako jarduera, espediente zenbakia eta onuradunaren identifikazio datuak.

Dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren zuritutako kopurua konprometitutako gastua baina txikiagoa balitz, dagokion diru kopurua itzultzeko eskatuko dio Udalak Aittu! Euskara Elkarteari, eta kopuru horri berandutze-interesak gehituko zaizkio.

HAMABOSGARRENA. GATAZKAK EBAZTEA.

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebatziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Adierazitakoaren arabera eta sinatzaileei dagozkien ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau izenpetu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako tokian eta datan.

Leire Artola Ugalde
Alkatea
BEASAINGO UDALA

Patxi Saez Beloki
Lehendakaria
AITTU! EUSKARA ELKARTEA



**DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN AURREKONTUA
2021. URTEA**

Gastuen Aurrekontua	15.000,00 €
----------------------------	--------------------

Gastu Kontzeptua	Kantitatea
Aittu! Euskara Elkartearen egituratu <ul style="list-style-type: none">- Topagunearen kuota- Baliabide informatikoak- Bulego gastuak- Funtzionamendu gastuak- Material teknikoa- Komunikazioa- Telefonoa	6.173,05 €
Beasaino euskalgintza egituratu <ul style="list-style-type: none">- Euskararen kale erabileraren neurketa- Komunikazioa	6.273,85 €
Beasaino arlo sozioekonomikoan eragin <ul style="list-style-type: none">- Komunikazioa (TBAI)	2.553,10 €

Sarreraren Aurrekontua	15.000,00 €
-------------------------------	--------------------

Sarrera Kontzeptua	Kantitatea
Udalaren dirulaguntza	15.000,00 €



Erantzukizunpeko aitortpena

Izen-deituraK	Patxi Saez Beloki		
Nortasun agiriaren zenbakia	15969078V		
Helbidea	Esteban Lasa kalea, 3		
Posta kodea	20200	Herria	Beasain

Elkartearen izena	Aittu! Euskara Elkartea		
IFZ	G75230607		
Helbidea	Martina Maiz kalea 3		
Posta kodea	20200	Herria	Beasain

Dokumentu honen sinatzaileak aitortzen du:

- Berak ordezkatzeko duen elkarteak ez dagoela sartuta onuradun izateko 2017ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12. Artikuluan adierazitako inolako debekutan.
- Berak ordezkatzeko duen erakundea ez dagoela sartuta onuradun izateko arau hauetan aurreikusitako debekuetan eta gaitasungabetzen duten zirkunstantzietan: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa 12. Artikulua-; 2015eko martxoaren 9ko 2/2015 Foru araua, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa -26.3 artikulua-; eta, indarrean dagoen gainerako araudia.

Lekua eta data	Beasainen, 2021eko maiatzaren
----------------	-------------------------------------